

ERABAKIA, 2020ko AZAROAREN 27koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, DOKTORE TITULUA LORTZEKO IKASKETA LIZENTZIAK ESLEITZEKO DEIALDI PUBLIKOA EBAZTEKO DENA.

1.- Helburua eta iraupena:

Deialdi honen helburua honako hau da:

- a).- Esleitzea doktore titulua lortzeko ikasketa lizentzien luzapena, 2020/2021 ikasturteko bigarren lauhilekorako.
- b).- Esleitzea doktore titulua lortzeko ikasketa lizentzia berriak, 2019/2020 ikasturteko bigarren lauhilekorako.

2.- Liberazioa bi lauhilekorako izango da, gehienera, lizentzia emango zaion irakasleak erabateko liberazioa badu, edo sei eskola orduko eta lau tutoretza ordu eta erdiko liberazio partziala badu.

Liberazioa hiru lauhilekorako izango da, gehienera, lizentzia emango zaion irakasleak lau eskola orduko eta hiru tutoretza orduko liberazio partziala badu.

3.- Luzapenen kopuru guztia agortu duten baina lauhilekoaren zati handi batean liberazioa hartu ezin izan duten pertsonak, ordezkoa berandu kontratatu delako, luzapena eskatu ahal izango dute, liberazioaren gehieneko epera iritsi arte.

4.- Oro har, lizentziaren iraunaldia amaitu egingo da, nahiz eta lauhilekoa oraindik amaitu gabe egon, doktorego tesia gordailuan uzten denean; hala ere, kontuan hartu ahal izango dira irakaskuntzaren jarraipenari eta kalitateari buruzko beste gorabehera batzuk.

2.- Aplikazio eremua:

Deialdia honako hauei zuzenduta dago:

- 1.- Doktore titulua ez duten eta lanpostuen zerrendako plaza bat betetzen ari diren arduraldi osoko irakasleei.
- 2.- Doktore titulua ez duten eta lanpostuen zerrendako plaza huts bateko irakaslana betetzen ari diren arduraldi osoko irakasleei.
- 3.- Doktore titulua ez duten eta ordezkoko gisa arduraldi osoan ari diren unibertsitateko irakasleei, betiere 10 urte baino gehiago eman badituzte unibertsitatean irakaskuntzan. . Arduraldi partzialean egindako zerbitzuak haztatu egingo dira 0,5 koefizientea erabilita.
- 4.- Bigarren eta hirugarren ataletan adierazitako kasuetan, lizentzia soilik emango zaie arduraldi osoko kontratua dutenei, aurreikusten denean kontratu horrek gutxienez lauhileko oso bateko iraupena izango duela eta lizentzia, betiere, aldi baterako kontratua bukatzen denean bukatuko da. Hau da, lizentzia emateak ez du aldi baterako kontratua luzatzea ekarriko.

3.- Lizentziaren baldintzak:

- 1.- Lizentzia emateak irakasle betebeharretatik guztiz salbuestea dakar oro har.

Irakats betebeharretatik eta tutoretza orduetatik partzialki salbuesten duen lizentzia ere eman ahal izango da, interesdunak hala eskatzen badu edota sailak ez badauka gaitasunik hartzeko bere gain ordezkokoak beteko ez duen irakaslana.

Lizentziak emango dira, oro har, ordezkorik kontratatatu gabe, ez bada aparteko kasuetan eta beharrian premiazoak eta atzeraezinak daudenean, bat etorrita uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. 2 artikuluan dioenarekin.

- 2.- Aurreko ataleko bigarren paragrafoan adierazitako moduan, Euskal Herriko Unibertsitateak bitarteko irakasle bat kontratatatu ahalko du, lizentzia izango duen irakasleari ordezkoko partziala egiteko; gainerako irakaslana sailak hartuko du bere gain. Oso aparteko kasuetan kontratu ahalko da ordezkoa arduraldi osoan.

- 3.- Irakaskuntza bermatuta egon behar da beti. Beraz, lizentzia onartu bada ordezkoarekin, irakaslea lizentziaz gozatzen hasteko, ordezkoa kontratatuta egon behar da eta lizentzia

eten egingo da baldin eta ordezkoren kontratua bertan behera geratzen bada edozein dela ere horretarako arrazoa.

4.- Sailak justifikatzen badu ezin duela hartu bere gain lizentzia eman zaion irakaslearen irakaslana, irakasle betebeharretatik partzialki salbuetsiko duen lizentzia emango zaio irakasleari.

5.- Hori dela eta, sailaren oniritzia erantsi beharko zaio lizentzia eskatzeko orriari, eta bertan jasota ageri beharko da sailak bere gain hartuko dituela ordezkoak betetzen ez duen irakaslana.

Saila irakaskuntza ematearen kontra agertzen bada, beste dokumentu bat erantsiko du, honako hauek aipatuta beren-beregi: 10 ikasle baino gutxiagoko matrikula duten hautazko irakasgaiak eta eskaintzen dituen aukera askeko irakasgaiak.

4.- Eskaerak:

1.- Lizentzia edo lizentzia luzatzea eskatu nahi duten irakasleek eranskineko eskaera orria bete behar dute. Halaber, honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- ☐ Tesiko zuzendariaren txostena, tesiaren egoeraren eta hura amaitzeko aurreikusitako epearen berri ematen duena.
- ☐ Irakasleak lizentzia duen artean egin asmo dituen jardueri buruzko memoria.
- ☐ Eskaera lizentzia luzatzeko denean, aurreko lauhilekoan egindako jardueri buruzko memoria ere aurkeztu beharko du.

2.- Agiriok Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzara igorri aurretik, sailak aztertuko ditu, eta irakaslearen eskaera ontzat ematen duen ala ez jakinaraziko du.

Aldeko txostena egiten badu, eskaera orriari erantsiko zaio, eta kontrako txostena egiten badu, berriz, erabakia justifikatzeko memoria erantsi behar du.

3.- Lizentzia eskatu nahi duten irakasleek eskaera orria bete behar dute (erantsitako eredua) eta Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari bidali.

5.- Sailaren txostenak:

Eskaera orriari sailak egindako txosten hauek erantsi behar zaizkio, nahitaez:

- ❑ Sailaren txostena, kontratatutako ordezkioak bere gain hartzen ez duen irakaslana bere gain hartzeko ahalmenari buruzkoa. Txostena kontrakoa bada, erabakia justifikatzeko memoria erantsi behar zaio, hirugarren atalean adierazitako moduan.
- ❑ Lizentzia eskatu nahi duen irakaslearen eskaerarekin bat datorrela adierazten duen agiria. Txostena kontrakoa bada, erabakia justifikatzeko memoria erantsi behar zaio.
- ❑ Sail berean irakasle batek baino gehiagok eskatzen badu lizentzia, sailak lehenetsi egin behar ditu eskaerak kontuan hartuta, besteak beste, tesiaren egoera, hura amaitzeko aurreikusitako epea eta lizentzia eskatu duen irakasleak egin asmo dituen jardueren proiektua.

Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak txostenak eskatzen baditu eta sailak ez baditu bidaltzen hiru eguneko epean, txostenak aldekoak direla ulertuko da.

6.- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia:

1.- Eskaerak aurkezteko epea **2020ko azaroaren 30etik 2021eko urtarrilaren 8ra bitartekoa izango da, biak barne**. Eskaerak Euskal Herriko Unibertsitateko Erregistro Orokorreran aurkeztu behar dira, edo, bestela, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartutako arautegian, hau da, Erregistro Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa Sortzeko Arautegian zehaztutako beste edozein bide erabilita (ekainaren 18ko EHAA). Arautegi horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea (azaroaren 27ko BOE) garatzen du.

2.- UPV/EHUko Erregistro Orokorraren bulegoak UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2012ko maiatzaren 16ko Erabakiaren I. eranskinean daude zerrendatuta; zerrenda hori edonoren eskura dago bai UPV/EHUko ikastegietako idazkaritzetan, bai Leioako

Errektoregoko bulegoetan, Bilboko Larrako Etxean, Arabako Campuseko Errektoreordetzan (Gasteizen) eta Donostiako Ignacio M^a Barriola Ikasgelategian. Era berean, Interneteko honako helbide honetan ikus daiteke: http://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra_ordutegia.

3.- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetako erregistro orokorrak irekita daude astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara, goizez, eta 15:00etatik 16:30era, arratsaldez. Ostiraletan, udako lanaldi jarraituan eta udaberriko zein neguko txanda berreskuratuetan, berriz, 9:00etatik 13:00etara.

Erregistro Orokorraren bulegoak itxita egongo dira dagozkien jaiegunetan, ikasturte bakoitzeko Administrazio eta zerbitzueta langileen lanaldi, lanordu, opor eta baimenei buruzko Zirkularrari jarraiki.

Zirkularra kontuan hartuta, Erregistro Orokorraren bulego bakoitzak ikusteko moduko tokiren bat eduki beharko du jarrita zeintzuk diren bere jaiegunak eta zein egunetan dagoen zabalik goizez bakarrik.

4.- Eskaera posta bulegoetan aurkezten duten interesdunek abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuko 31. artikulua xedatutako moduan aurkeztu behar dute. Errege Dekretuak posta zerbitzuak arautzen ditu, eta honako hau xedatzen du:

“Las solicitudes, escritos y comunicaciones que los ciudadanos o entidades dirijan a los órganos de las Administraciones Públicas, a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. El remitente también podrá exigir que se hagan constar las circunstancias del envío, previa comparación de su identidad con el original, en la primera página de la copia, fotocopia u otro tipo de reproducción del documento principal que se quiera enviar, que deberá aportarse como forma de recibo que acredite la presentación de aquél ante el órgano administrativo competente.

Practicadas las diligencias indicadas, el propio remitente cerrará el sobre, y el empleado formalizará y entregará el resguardo de admisión, cuya matriz archivará en la oficina.

Los envíos aceptados por el operador al que se encomienda la prestación del servicio postal universal, siguiendo las formalidades previstas en este artículo, se considerarán debidamente presentados, a los efectos previstos en el artículo 38 de la Ley30/1992, de 26 de noviembre, de

Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y su normativa de desarrollo."

7.- Lizentziak esleitzea:

1.- Eskaerak kanpoan geratuko dira automatikoki:

- ❑ Baldin eta egiaztatzen ez bada tesia aurreratuta dagoela eta, aurreikuspenen arabera, gehienez ere urtebeteko epean amaitu daitekeela, irakaslanetik guztiz salbuetsita izatea dakarren lizentzia badauka irakasleak; edo urtebete eta lauhileko bateko epean amaitu daitekeela, irakaslanetik guztiz salbuetsita ez izatea dakarren lizentzia badauka irakasleak eta ordezkoa kontratatu bada 6 eskola ordu eta 6 tutoretza ordu emateko; edo bi urteko epean amaitu daitekeela, irakaslanetik guztiz salbuetsita ez izatea dakarren lizentzia badauka irakasleak eta ordezkoa kontratatu bada 4 eskola ordu eta 4 tutoretza ordu emateko.
- ❑ Baldin eta lizentzia aldirako aurreikusitako lan proiektua behar bezala justifikatzen ez badute.
- ❑ Baldin eta sailak mota honetako beste lizentzia batzuk eman baditu eta lizentzia izan duten irakasleek ez badute doktorego tesia gordailuan utzi.

2.- Lehentasuna izango dute, beti, lizentzia luzatzeko eskaerak.

3.- Lizentzia berrietarako eskaeren artean, lehentasuna izango dute irakasleen % 50 oraindik ere doktore ez diren sailtako irakasleek.

Dena dela, ondo arrazoitutako kasuetan, eskaera egin duen irakaslearen sailean irakasleen erdiak baino gehiago doktore izan arren eskatzailearen jakintza arloan doktoreak % 50era heltzen ez badira, lehentasun bera eman ahal izango zaio.

4.- Lizentziak agortuko balira aurreko irizpidea aplikatu behar zaien irakasle guztiei lizentzia eman barik, honako hauek edukiko dira kontuan eskariak ebazteko:

4.1.- Sailak lizentzia bat baino gehiago eskatu badu, sailaren ustez lehentasuna duen eskaera honako irizpide hauen arabera baloratuko da:

- Lehentasuna izango dute lanpostuen zerrendako plaza bat betetzen ari diren edo lanpostuen zerrendako plaza huts bateko irakaslan bat betetzen ari diren karrerako funtzionario izendapenik edo kontratu iraunkorrik ez duten irakasleek.
- Ondoren, lehentasuna izango dute karrerako funtzionario izendapena edo kontratu iraunkorra duten irakasleek.
- Azkenik, ordezkioak egiten ari diren irakasleek, baldin eta deialdiaren eremuan sartzen badira.
- Talde bakoitzaren barruan (hau da, iraunkorrak ez diren irakasleak, iraunkorrak direnak edo ordezkioak), Euskal Herriko Unibertsitatean daukaten antzintasunaren arabera ordenatuko dira eskaerak. Arduraldi partziallean emandako zerbitzuak 0,5 koefizienteaz haztatuko dira .

4.2.- Lizentzia bat baino gehiago eskatu duten sailtako gainerako eskaerak sail guztiei gutxienez lizentzia bana esleitu zaienean aztertuko dira, arestian azaldutako irizpide berberei jarraiki.

Hau da, sail guztiei lizentzia bat esleitu ondoren, bigarren zenbakiarekin lehenetsitako eskaerak aztertuko dira, aipatutako irizpideen arabera; ondoren, hirugarren zenbakiarekin lehenetsitakoak aztertuko dira, eta horrela jarraituko da esleitu daitezkeen lizentzia guztiak agortu arte.

Rasu horretan, aurreko puntuan ezarritako irizpideez gain, irakaskuntza antolakuntzari buruzko irizpideak ere hartuko dira kontuan deialdia ebazteko.

5.- Sailean irakasleen % 50 baino gehiago doktore badira, ez zaie ikasketa lizentzia berririk emango, ezpada aipatutako irizpideak ezarri ondoren lizentziaren bat hutsik geratu dela; horrelakoetan ere, eskaerak ebazteko, aurreko atalean zehaztutako irizpideei jarraituko zaie.

6.- Eskaerak Irakasleen Prestakuntza eta Hobekuntza Batzordeak aztertuko ditu, eta Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen erabakiaren bidez ebatziko dira. Erabakia unibertsitateko webgunean argitaratuko da, eta interesdunei jakinaraziko zaie.

6.- Deialdia ebazteko erabakiaren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari, erabakia argitaratu eta hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, erabakia argitaratu eta bi hilabeteko epean.

8.- Irakasleen konpromisoak:

1.- Irakats betebeharretatik guztiz salbuesten duen lizentzia izanez gero, lizentzia hasi eta urtebeteko epean utzi behar da tesia gordailuan.

2.- Irakats betebeharretatik partzialki salbuesten duen lizentzia izanez gero (6 eskola ordu eta 4,5 tutoretza ordu gutxiago), lizentzia hasi eta urtebete eta lauhileko bateko epean utzi behar da tesia gordailuan.

3.- Irakats betebeharretatik partzialki salbuesten duen lizentzia izanez gero (4 eskola ordu eta 3 tutoretza ordu gutxiago), lizentzia hasi eta bi urteko epean utzi behar da tesia gordailuan.

4.- Kasuan kasuko epean doktorego tesia gordailuan utzi ezean horretarako arrazoiak behar bezala justifikatu gabe, irakasleak itzuli egin beharko dizkio administrazioari lizentzian zehar liberatuta izan dituen eskola orduak.

5.- Horrez gain, irakasleak ez badu konpromiso hori bete eta sailak oniritzia eman bazion eskaerari, erabaki daiteke saileko irakasleei ez ematea mota honetako lizentziarik hurrengo bi ikasturteetan.

ERREKURTSOAK

Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari erabakia argitaratu eta hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegietan erabakia argitaratu eta bi hilabeteko epean. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 112. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoaren

babesean.

Leioa, 2020ko azaroaren 27a

Iz.: INMACULADA GUERRICAGOITIA MARINA
IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEA

**ESKAERA ORRIA, DOKTORE TITULUA LORTZEKO IKASKETA LIZENTZIA BERRIA
ESKATZEKO EDO LIZENTZIA LUZATZEA ESKATZEKO**

ESKATZAILEAREN DATUAK:

ABIZENAK:		IZENA:
NAN:	E-MAIL	TELEFONOA

Honen bidez ondoko lizentziarako eskaera egiten dut (jarri X aukeratutako lizentzia motan):

Ikasketa lizentziaren luzapena:

- ☐ Irakats betebeharretatik guztiz salbuetsita eta ordezkoa kontratatuta.
- ☐ Irakats betebeharretatik guztiz salbuetsita eta ordezkoa kontratatu gabe.
- ☐ Irakats betebeharretatik partzialki salbuetsita eta ordezkoa kontratatuta (6 eskola ordu eta 6 tutoretza ordu emateko)
- ☐ Irakats betebeharretatik partzialki salbuetsita eta ordezkoa kontratatuta (4 eskola ordu eta 4 tutoretza ordu emateko)
- ☐ Irakats betebeharretatik partzialki salbuetsita eta ordezkoa kontratatu gabe.

Ikasketa lizentzia berria:

- ☐ Irakats betebeharretatik guztiz salbuetsita eta ordezkoa kontratatuta.
- ☐ Irakats betebeharretatik guztiz salbuetsita eta ordezkoa kontratatu gabe.
- ☐ Irakats betebeharretatik partzialki salbuetsita eta ordezkoa kontratatuta (6 eskola ordu eta 6 tutoretza ordu emateko)
- ☐ Irakats betebeharretatik partzialki salbuetsita eta ordezkoa kontratatuta (4 eskola ordu eta 4 tutoretza ordu emateko)
- ☐ Irakats betebeharretatik partzialki salbuetsita eta ordezkoa kontratatu gabe.

Lizentzia eskatzen duen irakasleak eskaerari ondoko agiriak erantsi dizkio:

- ☐ Tesiaren zuzendariaren txostena, tesiaren egoeraren eta tesia amaitzeko aurreikusitako epearen berri ematen duena.
- ☐ Lizentzia duen artean egin asmo dituen jardueri buruzko memoria, eta aurreko lauhilekoan egindako jardueri buruzko memoria (azken hau lizentzia luzatzeko eskaera eginez gero baino ez da beharrezkoa).

Lizentzia eskatzen duen irakasleak deialdiak aipatutako epean tesia gordailuan uzteko konpromisoa hartzen du.

Iz.: ESKATZAILEA

SAILAREN TXOSTENAK

- ❑ Sailak bi txosten egin behar ditu eskaera Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzara bidali aurretik. Bata, irakasleak egindako eskaerari buruzkoa; eta bestea sailaren ahalmenari buruzkoa, adieraziko duena sailak hartu ahal duen bere gain irakasleak utzitako irakaslana guztiz edo partzialki liberatuz gero, kontuan izanda unibertsitateak aparteko kasuetan baino ez dituela kontratatuko ordezkioak, beharrian premiazkoak eta atzeraezinak daudenean.
- ❑ Bi txostenetako bat kontrakoa bada, erabakia justifikatzeko memoria erantsi behar da.
- ❑ Eskaera bat baino gehiago badago sail berean, eskaerak lehenetsi eta erabakia justifikatzeko memoria erantsi behar da.

SAILAK IRAKASLEAREN ESKAERAREN ALDE EGINDAKO TXOSTENA	SAILAREN ONIRITZIA, SAILAK BERE GAIN HARTZEKO IRAKASLANA
Iz.: Saileko zuzendaria	Iz.: Saileko zuzendaria

Adierazi, beren-beregi, eskatzaileak lauhilekoan dituen irakats betebeharretatik zenbat hartu ahal dituen sailak bere gain eta, beharrezkoa izanez gero, zenbat hartu beharko dituen bere gain lizentzia izango duen irakasleak.

UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARI